

# BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezeroekiko harremanari garrantzi handia ematen diogu gure enpresan, harreman egokia, formala eta ona funtsezkoa deritzogulako.

Hori dela eta, bezeroekiko harremana mota ezberdinekoak izango dira, bakoitzak bide ezberdina izango duena. Alde batetik, Anek web-gune bat sortu eta antolatuko du, bertan dendaren telefono zenbakia ipiniko dugu, horrela, bezeroek informazioa edota edozein gauza behar izatekotan, modu zuzenean deitu eta hitz egin ahal izango dute gurekin.

Horrela, web-gunetik egindako esakera, galderak eta iradokizunetaz Ane arduratuko da, baita ere sare-sozial guztietaz. Nerea, telefonoz hitz egiteko eta kontsultak edota zalantzak argitzeko arduratuko da. Dendara jotzen duten bezeroek beraien bizikleta arazoren bat eduki dutelako, Mikel arduratuko da horretaz, arazoa konpontzen saiatuz. Azkenik, Hegoi, dendan ere egongo da ahal den neurrian, bezeroei arreta emanez eta aintzat hartzen.